

# CORTADA 2019

VITORIA-GASTEIZKO XXIII FILM LABURREN JAIALDIA

## **EHUSKARABANDA 2019 BIDEOMARATOIA**

### **BEREHALAKO FILM LABURREN LEHIAKETARAKO OINARRIAK**

**2019ko abenduaren 12a. UPV/EHU.**

**Arabako Campusa. Vitoria-Gasteiz.**

---

1. Parte hartzaileak: Lehiaketan parte hartu ahalko dute nahi duten pertsona guztiek, baldin eta taldea bi lagunek, gu-txienez, osatua badago.
2. Talde bakoitzak lan bakarria aurkeztu ahalko du lehiaketan.
3. Film laburrak lehiaketa egingo den goizean filmatuko dira eta horien iraupena 2 minututik beherakoa izango da. Ez da onartuko lehenago filmatutako lanik. Talde bakoitzak bere baliabideak erabiliko ditu film laburrak filmatzeko.
4. Lehiaketa goizeko 10:00etan hasiko da. UPV/EHUko Arabako Campuseko Micaela Portilla Ikerguneko Areto Nagusian elkartuko gara, bertan emango baitzaio hasiera lehiaketari. Film laburrak euskarri digitalean entregatuko dira. Edozein gailu bidez filmatu ahal da, baita edozein gailuz filma muntatu ere. Film laburrak eta materialak egun bereko 15:00etan entregatuko dira aipatutako Areto Nagusian.
5. Gaiak: Lehiaketako gai bakarria UPV/EHUko Arabako Campuseko euskararen erabilera izango da. Lehiaketan euskarra bakarrik onartuko da. Lanak Gasteizko edozein tokitan filmatu ahalko dira, baina planoren bat Arabako Campusean filmatu beharko da.
6. Gako hitz bat agertuko da lan guztietan: UDAZKENA.
7. Nola apuntatu. Mezu elektronikoko bat bidali helbide honetara: [festivalcortada@gmail.com](mailto:festivalcortada@gmail.com), EHUSKARABANDA hitza jarritz gai moduan. Mezuaren muinean partaideen datu hauek egon behar dira: Izen-abizenak, parte hartzaileen NANA eta harremanetan jartzeko telefono edo helbide elektronikoko bat. Izena emateko epea gaueko 12:00etan amaituko da abenduaren 11ean, lehiaketaren bezperan.
8. Sariak. Deialdi honetan epaimahai batek hiru sari emango ditu. Lehengo saria: 200 euro), bigarrena eta hirugarrena: 100 euro.
9. Film laburrak lehiaketaren abenduaren 13an jarriko dira. Ordutegi eta lekua partaideei esango diegu lehiaketaren egunean. Egun horretan, "Euskal film laburraren eguna" ospatuko dugu CORTADA jaialdian. Emanaldiaren ostean lehiaketaren sari banaketa egingo da.
10. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du.

#### **EHUSKARABANDA-BIDEOMARATOIA**

Helbide elektronikoa: [festivalcortada@gmail.com](mailto:festivalcortada@gmail.com)

Webgunea: [www.festivalcortada.com](http://www.festivalcortada.com)